

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure merkatua hainbat bezero mota desberdinez osatua dago. Alde batetik, merkatu masiboa izango dugu; hemen antzeko behar eta arazoak dituzten pertsonak aurkituko ditugu. Beste alde batetik, merkatu-nitxoa izango dugu; bertan bezero oso zehatzak izango ditugu.

Lehen taldean, ospitaletako eta egoitzetako bezeroak izango ditugu, hau da, talde handi eta bakar batean oinarrituta daude, non antzeko beharrianak eta arazoak dituzten. Gehienetan, pertsona nagusiei bideratuta egongo da, beraien beharrak eta mugimendu arazoak asetzeko eta independentzia maila bat lortzeko.

Bigarren taldean, bezero zehatzagoak izango ditugu. Etxean aurkitzen diren mugimendu arazoak dituzten pertsonen osatzen da talde hau. Gure produktua beraien etxeetan egongo da ospitaleko logela baten edo egoitza baten egon beharrean. Produktua bezeroaren neurrira diseinatuko dugu kasu hauetan.

Beraz, gure enpresa bi merkatu segmentazio hauetan oinarrituko da gehienbat.

